

BABEL

Aurreko tertulierekin lotura handia du baina beste "matiz" batzuekin. Bertan lau istorio gertatzen dira baina laurak lotura dute beraien artean. Globalizazioak garrantzi asko du bertan, nahi gabe konektatuta azaltzen bait dira, gizartean filmean agertzen denak ere eragina du egunerokotasunean.

Zinema hezitzailea da baloreak eskaintzen dituelako eta gainera influentzia asko du gizartearengan. Honek beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Kulturartekotasuna sustatzen du?

Beste ezagutza ezberdin batzuk aukera eskaintzen du, hortaz beste kultura batzuk ezagutzeko aukera sortzen da.

Telebista, zinema, etab. tresna egokiak dira?

Positiboki erabili daiteke baino gaizki erabiltzen dugu. Bakoitzaren interpretazioaren arabera aldakorra izan daiteke

Hezitzaileak ez dira bakarrik intelektualki prestatu behar, beste hainbat tresna kontuan hartu behar ditu eta hauek erabiltzen jakin behar du, adibidez, teknologia. Estatusak normalean aukerak baldintzatzen dituela uste dugu baina hau ez da hala, esperientziatik gehiago ikasten da estatusetik baino.

Aurretik aipatu bezala eszenatoki guztiek (istorio guztiek) beraien arteko lotura dute eta argi geratzen da bata bestearekin eragina izan dezaketela nahiz eta munduaren beste puntan gertatu.

*Globalizazioaren metafora autoreak azaltzen du batez ere, ez gara horren ezberdinak, beldurrean berdina gara (erriflearen gertaera, tiro bat ematen dionean) Ezberdintasunak begiratzen ditugu askotan eta komunean ditugun horiek begiratu beharko genituzke.

Globalizazioak berdintasuna ekarri beharko luke, baina geroz ezta ezberdintasun gehiago sortzen ditu. Egunerokotasunean ere eragina du honek, eksklusibotasunaren falta ekartzen du termino honek, batzuk zapalduak sortaraziz.

Teknologiaren aldetik, printzipio unibertsalak ere zapaltzen dira Tokio eta Marokko alderatzen baditugu adibidez ez daude konpentsatuta eta printzipioak urratzen dira.

*Emakume marokkoarra zauritua denean, turistak laguntzen diote eta ez bertakoak, honek ere laguntzen digu hausnarketarako bidean kulturartekotasunarekin.

Hitz gabeko komunikazioa (Japoniako emakumeak):ingurukoak baztertzen dute, bazterketa bikoitza jasaten du, komunikatzeko baliabideak dauden arren, herrialde garatua delako, bere adierazpenak sexualki azalarazten dira eta honek baztertzean eragiten du. Istorio guztien parte da inkomunikazioa, denetan arazoa hau ematen da; turistak umea galdu dute eta eten gabeko reprotxeak dituzte honen ondorioz, mexikarrak poliziarekin jasotako tratu txarrek ere gaizki ulertuak ematen ditu.

Talka kulturala ere nabarmentzen da, mespretxuarekin komunikatzen dira estatusak direla medio (okzidente vs. oriente). Gainera, mugimenduen askatasuna guztientzat ez da berdina, batzuk globala lortzen duten bitartean beste batzuk lokala. Bertakoak turismoaren barnean sartzen dituzte eta produktu bilatzen dituzte beraz, mugimendu lokala bakarrik lortzen dute.

Borobiluz, interkomunikazioa sufrimendu bidez ematen da, gauza txikitan nabarmentzen da benetako interakzioan.